

**LEGEbiltzar AUTONOMOAK EUROpan:
ESKOZIARREN ETA SAMIEN KASUAK**

Berrogeita hamar urte bete zituen Europar Batasunak 1997ko martxoaren 25ean. Oraindik ez da, hala ere, erregio edo eta estaturik gabeko herrialdeen eskumen mailari buruzko gogoetarik egin. Izan ere, erregioen auzia bigarren mailako gaia da Europarentzat. Horren adierazle dira, Europar Batasuneko Hitzarmenaren ondorioz sortu zen Erregioen Batzordeak izaera kontsultibo hutsa izatea edo eta estaturik gabeko herrialde gehienek axola zaizkien gaictan ordezkagaritza edo eta kompetentzia propiorik ez izatea.

Hala eta guztiz, argi dago gauzak mugitzen ari direla Europa zaharrean. Erabakiak era autonomoan hartzeko gero eta aukera gehiago agertzen ari zaizkie estaturik gabeko herrialdeei; edo, berdin dena, gero eta legebiltzar edo eta administrazio autonomo gehiago sortzen ari dira.

Maila honetan gertatzen ari dena ezagutzeko Europako estatuetan dauden legebiltzar autonomo guztiak aztertzea idazki honen helburuetarako gehiegizkoa izanik, aurki martxan jarriko den Eskoziako Legebiltzarraren kasua eta Suedia, Norvegia eta Finlandian hirurogeita hamargarren hamarkadaz geroztik agertu diren samien legebiltzarrak aztertuko ditut; estatu zentralista klasikoetan kokatuta egonik legebiltzar autonomo mota ezberdinak garatu baitituzte.

1.- DEVOLUTION DELAKOA ETA ESKOZIAKO LEGEBILTZARRA

1707. urtean bere legebiltzarra Ingalaterrakoarekin elkartu zuen arte Eskoziak legebiltzar autonomo bat izan zuen. Sinatu zen *Batasun Aktaren* ondorioz, Batasun Estatu sortu zen non legebiltzar bakar bat izanda ere, eskoziarren gizarte zibilaren eta administrazioaren berezitasun ugari mantentzen ziren¹. Zehazki, Zuzenbide Erromatarrean oinarritutako lege egitura bat (Ingalaterrako zuzenbidea Common Law delakoan oinarrituta dago), eliza desberdina eta hezkuntza egitura berezia gorde ditu Eskoziak².

Egoera honek, 1979. urtean Eskoziari eskumena bueltatu edo ez (*devolution* izenez esagutzen den prozesua) erabakitze-ko egin ziren lehen hauteskundeetan hultzatu zituen baieztapen nazional prozesu bat jarri zuen martxan XX. mendeko bigarren erditik aurrera. Hirurogeigarren hamarkadaz geroztik, hain zuzen ere, *Status quo*-a mantendu, independentzia eskatu edo deszentralizazio politikoa garatzearen inguruan eztabaida garrantzitsua bizi izan da Eskozian. Eztabaida honek, eskumena bueltatzeari buruzko hauteskundeak ekarri zituen 1979ko martxoaren 1ean. Hauteslegoa *devolution* delakoaren alde agertu bazen ere (%51,6), baiezko botuak ez ziren hautezkunde zentzuaren %40 heldu (%32,9an gelditu ziren) Westminsterrek eskatzen zuen bezala³.

Margaret Thatcher eta Majorren agintaldietan, *devoluci6n* edo boterearen itzuleraren espektatibak desagertu egin ziren

¹ Eskoziako gaelikoa desagertzen ari da. Zentzuaren arabera 1891. urtean 254.415 pertsonak hitz egiten zuten gaelikoa. 100 urte geroago, hau da, 1991ean, 69.510 pertsonak. Gutxi gora-behera 5.500.000 biztanle dituen herrialde bat dela kontuan hartuz, argi dago hizkuntza hiltzen dagoela.

² Birch, H.A.: *Nationalism & National Integration*. Unwin Hyman, London, 1989, 77. orr.

³ Moreno, L.: *Escocia, Nación y Raz6n. (Dos milenios de pol6tica y sociedad)*. Consejo Superior de Investigaciones Cientificas. Instituto de Estudios Sociales Avanzados, Madrid, 1995, 157. orr.

eskoziarrentzat. *Devolution* delakoa independentziarako lehen pauso bezala ikusten zuten (eta duten) neurrian, Eskoziari eskumenik ematearen aurka agertu izan dira beti Tory-ak.

Dena dela, iritzi galdeketek eskoziar gehiengoak independentzia (%41) edo nolabaiteko autonomia (%39) nahi zuela kontuan hartuz (%20 zegoen bakarrik pozik egoerarekin)⁴ eta Alderdi Laboristak Eskozian dituen interes politikoak babestu nahirik, agintera heltzen bazen autonomiari buruzko hauteskundeak egingo zituela agindu zuen. Ez da aiantzi behar Eskozian sentimendu nazionalistak ez direla alderdi politiko bakarraren eskuetan egon (nahiz eta SNP bere adierazpen argiena izan) eta horrek eragina izan duela 1997ko irailaren 11an *Devolution* delakoaren inguruan hauteskundeak egin eta autonomiaren aldeko jarrera garaile ateratzeko.

Eskoziako Legebiltzarra

Tony Blairren gobernuak plan zabal bat aurkeztu du 1998tik aurrera Eskoziako legebiltzar autonomoa zabaldu eta herrialde honi eskumen maila handiagoa emateko. Hala eta guztiz ere, eskumenaren itzulera zehazten den *Paper Zurian* burujabetza Westminster-eko Legebiltzarrean mantenduko dela zehazten da. Zentzu honetan, Eskoziako Legebiltzarrak boterea bereganatuko badu ere, subiranotasunak London-en jarraituko du.

Kamara bakarra izango du legebiltzarrak eta gehiengoaren sistemaren bitartez lau urtean behin aukeratuak izango diren 129 legebiltzarkide izango ditu. Legebiltzarra lehen ministrariak eta kabinete batek gidatuko dute. Dena dela, Eskoziarako Estatu Idazkariak London-eko kabinetearen menpe jarraituko du.

Hezkuntza, etxebizitza eta osasunaren inguruan legeak egin eta administratzeko eskubidea izango du; baita zergak bildu

⁴ Eskisabel, I eta Ormaetxea, A.: "Highlanden beste altxamendu bat". Egunkaria, 1997ko Apirilak 30.

eta aldatzekoa ere. Ez du Batasun Europearrarekin zuzenean negoziatzeko eskubiderik izango.

Honela bada, zenbait gaitan eskumen maila handia izango duela esan badaiteke ere (zergak aldatzeko boterea, etxebizitza, osasuna...) garrantzizko transferentziak Westminsterren menpe geldituko dira (Europar Batasunean ordezkaritza izateko eskubidea kasu). Are gehiago, nazionalistek *Devolution* delakoa Westminsterrek nahi duenean oztopatu edoeta ezeztatu dezakeela diote. Honela bada, eskumen maila handiago lortzea, nazionalistek (SNP) izango duten bilakaeraren eta hurrengo urteetan Westminsterren kontserbadoreak edo laboristak egongo direnaren menpe gelditzen da.

2.- SAMIAK ETA FINLANDIA, SUECIA ETA NORVEGIAKO LEGE BILTZAR SAMIAK

Lapoiak edo, beraiek deitzea nahiago duten bezala, Samiak, Suedia, Norvegia, Finlandia eta Errusiako lurraldeetan aintzinate bizi izan den gutxiengo etnikoa da. Batez ere XVI eta XVII. mendeetatik aurrera eliza⁵, gobernu eta bizi diren estatuetatik⁶ urteetan jasan behar izan duten ridikulizazio, bazterketa eta presioen menpean egonda ere, beraien hizkuntza (34.054 pertsonak, hau da, %50ak hitz egiten du samia gaur egun), kultura eta identitatea mantentzeko gai izan dira.

Samien lurraldea, ohituraz, Suedia eta Norvegiaren erdialdetik Finlandiako Iparraldera eta Kola peninsularaino doa. Gaur egun Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusia estatuei dagozkien lurraldeak dira, beraz.

Zenbait ikerlarik samien kopurua 60.000 eta 100.000 bitartean dagoela badio ere, estimazio arretatsuegoek errealitatean

⁵ Instituto Sueco: *El pueblo sami de Suecia*. Instituto Sueco, Suecia, 1984.

⁶ Kuoljok, S. y Utsi, E. J.: *The Sami. People of the sun and wind*. Åjtuc, Swedish Mountain and Sami Museum, Jokkmokk, Sweden, 1993, 52. orr.

70.000 sami daudela erakusten dute: Norvegian 40.000tik 45.000ra, Suedian 20.000, Finlandian 6000 eta Errusian 2.000 inguru.

Renoaren uztiaketatik gutxiengo bat bizi bada ere, diru sarreara garrantzitsua da, gaur egun ere, samientzat. Honek, ohituraz erabili dituzten baso, belardi eta uren aldarrikapena samien politikaren eta legebiltzarren arlorik garrantzitsuenetarikoa izatera eta talde eta erakunde sami asko eta asko ohiturazko bizimoduaren eta baliabideen babesarekin lotuta egotera eraman du.

Herri eta kultura indijena bezala beraien egoera hobegotzen badoa ere, ez dago zalantzarik desagertzeko zorian dagoen gutxiengoa dela. XIX. mendean zehar eta XX. mendean gobernu ezberdinek martxan jarri zituzten prozesu asimilatzaileak eragin ezkorra izan baitute herri bezala duten etorkizunean⁷.

Prozesu asimilatzaileak aintzinakoak izanda ere, herrialde ezberdinetako samiak elkartu zituen lehen batzar paneskandinaviarra 1917. urtean izan zen. Hemendik aurrera gero eta elkarte gehiago agertu eta samientzako hezkuntza sistema bat aldarrikatzen hasi ziren. Mundu guden artean ezer gutxi egin eta lortu ondoren, 1953. urtean herrialde ezberdinetako samien benetako elkarlaguntza hasi zela esan daiteke. Elkarlaguntza honek kontzientzia nazionala piztu eta beraien kultura eta bizitzeko era babesteko estatu ezberdinetako samien arteko elkarlana areagotu zuen.

Honek guztiak, 70. hamarkadaren bigarren erditik aurrera eskumen maila handiagoak aldarrikatzera eraman ditu Norvegia, Finlandia eta Suediako samiak. Zehatzago esateko, 70. hamarkadaz geroztik legebiltzarrek samiak sortu dira Suedia, Finlandia eta Norvegia.

⁷ The Norwegian Ministry of Local Government and Labour. Department of Sami Affairs: *The Sami-The Indigenous People of Norway*, 1995, 11. orr.

2.1.- Finlandiako Samiak

Gutxi gora-behera 6.000 sami bizi dira gaur egun Finlandian. Suedian eta Norvegian ez bezala, ohituraz erabili dituzten lurak Finlandiako estatuak administratzen ditu gaur egun eta horrek edozein finlandiarrek lurralde hoietan renoak zaindu eta ehizan edo arrantzan egin dezakeela esan nahi du⁸. Kontuan izan behar da, hala ere, Finlandiako gobernuak era ezberdinetako materiala argitaratzeko laguntzak emanaz, samien kultura mantentzeko gehien gastatzen duen gobernuak dela.

Finlandiako Sami Legebiltzarra

1976. urtean Finlandiako Samien Legebiltzarra zabaldu zen. Legebiltzar honek 20 ordezkari ditu eta lau urtean behin berriztatzen da. Hauteskundeetan bozkatzeko zein hauteskunde zerrendatan joateko beharrezkoa da 18 urte izan eta samien erregistroan egotea. Horretarako, hizkuntz irizpideak bete behar dira; hau da, samia ama hizkuntza bezala jakin behar da edo guraso edo aitita-amonetariko batek samia ama hizkuntza bezala eduki behar izan du⁹.

Legebiltzar honen helburua, gobernu finlandiarrari proposamenak egin eta eskariak luzatuz samien interesak eta eskubiak babestea da¹⁰. Aipatzekoa da, hala ere, legebiltzar honek kontseiluak emateko boterea duela bakarrik. Ez du, beraz, samiei loturiko gaietan erabakiak hartu ez gobernuarengan eragiteko eskumenik ere¹¹.

⁸ Aikio, P.: "Development of the political status of the Sámi People in Finland". The World Commission on Culture and Development: Majority-Minority Relations. *The case of the Sami in Scandinavia*. Diedut, nº 1, 1994, 39. orr.

⁹ Beach, H.: *The Sami of Lapland*. The Minority Rights Group. Report No. 55, 11. orr.

¹⁰ Beach, H.: *The Sami of Lapland*. aip. lib., 11. orr.

¹¹ Finlandiako Sami Legebiltzararen informazio orria: <http://www.vn.fi/un/um/finfo/english>

Legebiltzarreko lana antolatzen duen kontseilu bat eta lehendakari bat dauka eta bere gastuak gobernu finlandiarrak ordaintzen ditu.

2.2.- Norvegiako Samiak

Gaur egun 40.000tik 45.000ra sami dago Norvegian. Hauetarikoz batzuk renoak zaintzetik bizi badira ere (samien %10a), gehiengoak noruegiarrak bezala bizi eta lan egiten du.

Norvegiako gobernu berezitasun ezberdintzaileak dituen gutxiengo etniko bezala onartu eta herri indijenen eskubideak babesten dituen ILOren 169. konbentzioa jarraitzen duen estatu eskandinaviar bakarra da. Zentzu honetan, azken hamarkadatan Norvegiako samien egoera asko hobetu dela esan daiteke. Beraien alde hartutako erabakien artean aipatzekoak dira Norvegia Samien Legebiltzar eta eskubideak zehazten dituen 56. akta (1987)¹² eta 1988. urtean Noruegiako Konstituzioan sartu zen eta samien eskubideak babesten dituen 110. artikulua. Artikulu honen arabera: "Estatuko agintarien erantzukizuna da sami herriari beraien hizkuntza, kultura eta bizitzeko era mantendu eta gartztea halbidetuko dioten balditzak sortzea". Ez da ahantzi behar, hala ere, samiekin izilu armatuetan sartzeko hurbilen egon den Gobernu izan dela Alta ibaian (Finnmark konterrian) 1980-1981. urte bitartean zentral hidroelektriko bat eraiki zuenean.

Norvegiako Sami Legebiltzarra edo Sametinget

Norvegiako Samien Legebiltzarra 1989. urtean ireki zituen bere ateak. Legebiltzar hau Norvegiako administrazioaren menpe dago eta bere eginbehar, eskubide eta botereak aipatu dugun Sami Aktan zehazten dira.

Norvegiako Samien Legebiltzarra edo Sametinget 39 biltzar-kideez osatuta dago eta hauteskudeak lau urterik behin egiten

¹² Department of Sami Affairs: *The Sami-The Indigenous People of Norway*, The Norwegian Ministry of Local Government and Labour, 1995, 16. orr.

dira Norvegiako Legebiltzarrerakoekin batera. Legebiltzarrerako ordezkari izan edo bozkatzeko, samien erregistroan egon, 18 urte baino gehiago izan eta norbere burua samitzat izan edo guraso edo aitita-amonetariko batek samia hitz egin behar izan dute (1989. urtean 5.497 pertsona eta 1993an 7.236 pertsona zeuden erregistro horretan).

Legebiltzar honek samiei dagozkien politikak bultzatu eta beraien eskubideak babestea du helburu. Horretarako, agintari zein erakunde pribatuengana zuzendu eta dagozkien gaiei buruz beraiekin eztabaidatzeko eskubidea dauka. Garrantzi berezia dute, renoekin eta ohituraz erabili dituzten lurraldeetako lehen gaiekin (belardiak, lurrak, ura, ehiza...) zerikusia duten arloak, baita samien kultura eta hizkuntzari loturikoak ere. Eginbeharreko hauek guztiak zehaztu eta bultzatzen dituen Presidium bat dauka lehendakari batekin.

2.3.- Suediako samiak

Suedian 20.000 sami bizi dira; gehienak ohituraz samiak izan diren Norrbotten, Västerbotten eta Jämtland konterrietan. Dena dela, aipatzekoa da, samien bigarren elkarte handiena Estokolmon dagoela. Norvegian bezala, gutxiengo batek ateratzen du bizimodua renoetatik (3.000 bat sami; hau da, %15a).

Suediako Sami Legebiltzarra edo Sametinget

1993. urtean ireki zen Suediako Samien Legebiltzarra edo Sametinget delakoa. Legebiltzar hau sortzearen arrazoia, laro-geigarren hamarkadaz geroztik ohituraz erabiltzen zituzten lur, ur eta lehen gaiekiko eskubideen inguruan epaiketa asko galdu ondoren nolabaiteko botere politikoa lortu eta gobernuari presionatzeko gaitasuna lortzea izan zen.

Suediako Samien Legebiltzarra estatuko organo administratibo bat da eta, ondorioz, Gobernuaren menpe dago. Suediako Legebiltzarrak (Riksdag) Samien Legebiltzarraren inguruan erabakiren bat hartzen duen bakoitzean zera adierazten du:

“Nahiz eta legebiltzar izena eman, Legebiltzar Samia ez da Riksdag, udaletxeek edo beste organu batzuek sortzen dituzten arauen orde ez hauekiko kompetentzian egon daitezkeen arauak sortuko dituen mekaniskoa”; hau da, legebiltzar honen boterea mugatua dela azpimarratzen da.

Dena dela, ezin ukatu samien legebiltzarrak hauei loturiko kompetentzia batzuk dituela¹³.

Zehazki, ehiza, arrantza eta renoen uztiaketarekin lotzen dira Legebiltzarrak hartzen dituen erabaki garrantzitsuenak; ohituraz erabili dituzten lehen-gaien kudeaketa, alegia.

Legebiltzar honek 31 jarleku ditu eta lehendakari bat gehi sei pertsonen osatutako batzorde eragile bat dauka legebiltzarren politika eta kudeaketa zuzentzeko.

3.- ETORKIZUNARI BEGIRA

Nahiz eta Britainia Handia, Suedia, Norvegia eta Finlandia bezalako estatu zentralistetan bizi eta mendeetan beraien kultura baztertua izan, eskoziarrak zein samiak beraien identitate nazionala mantendu, garatu eta, azken urteetan, politikoki bilakatzeko gai izan dira. Horren ondorio dira, hain zuzen ere, erabakiak hartu eta boterearengan eragiteko sortu diren eta gero eta gaitasun handiagoa duten erakunde autonomoak (Eskoziako Legebiltzarra 1998an sortuko da eta Finlandiako, Norvegiako eta Suediako Samien Legebiltzarrak 1976, 1989 eta 1993 urteetan sortu ziren).

Europar barrena dauden estaturik gabeko herrialdeek duten botere mailen artean ezberdintasun garrantzitsuak daudela ezin ukatu, hala ere; sinplifikazio handia egiten badugu ere, gutxienez mota biko legebiltzarrak daudela esan genezake:

- Alde batetik, Eskozia bezalako herrialdeak ditugu. Nahiz eta soberania estatuaren menpe egon, zergak bildu eta hez-

¹³ Sametinget: <http://www.sametinget.se>

kuntza, osasuna eta etxebizitza bezalako gai garrantzitsuetan erabakiak hartzeko gai direnak. Eskumen mailari dagokionez lehen mailako legebiltzarrak dira.

- Bestetik, ia ia sinbolikoak diren legebiltzarrak dituzten herrialdeak aurkitu ditzakegu. Suedia, Norvegia eta Finlandiako Samien legebiltzarrak izango genituzke bigarren multzo honetan. Kultura, hizkuntza eta beraien zerikusia duten gai oso zehatzetatik kanpo (samien kasuan lur, baso, belardi eta uren erabilerarekin loturiko gaiak), eskumen maila txikia dutenak. Botere zein aurrekontuan ikusita bigarren mailako legebiltzarrak bezala sailkatu ditzakegu.

Abiadura ezberdinekin bada ere, etorkizunean era bateko zein besteko legebiltzarren eskumen maila handiagotzen joango dela pentsa genezake. Are gehiago, benetako boterearen jabeak estatuak izanik ere, erabakiak hartu eta gobernuengan eragiteko gaitasun gero eta handiagoa izango dute (Norvegiako Legebiltzar Samiak izan duen bilakaera horren adierazle on bat da). Gobernu ezberdinek argi baitute nazionalismo etnikoak mugen barruan era baketsuan mantendu nahi badira, autonomia maila gero eta handiagoak eman beharko dizkiela.

Era honetako administrazio autonomoen etorkizuna, beraz, testuinguru politikoaren eta gobernu ezberdinekin negoziatzeko duten gaitasunaren arabera egongo da. Estatu ezberdinetan boterean zeintzu alderdi dauden eta hauekin dituzten harremanak zerikusi handia izango dute bilakaera honetan, beraz.

Honelako legebiltzarrek administrazio autonomorik ez duten beste herrialde batzuetan ere eragina izango dutela pentsa daiteke, bestalde. Aipatzekoa da, esaterako, Errusiako Samiak (2.000 inguru) legebiltzar autonomo bat egitekotan dabiltzala Finlandia, Suedia eta Norvegiako samiak era horretako erakundeak dituztela ikusita. Legebiltzar propio bat ez duten sami bakarrik izanik, beste herrialde nordikoetan dauden bezalako erakunde bat aldarrikatzen dabiltza ohituraz erabili dituzten ur eta lurrekiko eskubideak berrezkuratu eta egoera politikoa hobea gozatzeko.

Azkenik, era honetako legebiltzarren artean harreman gehiago egongo dela eta honek dauden estatuengan zein estatuzgaitzako erakundeetan (Europar Batasunean, adibidez) eragiteko gaitasun handiagoa izango dutela pentsa daiteke. Honela bada, denborarekin Europar Batasunak ere orain arte eman dion baino garrantzi gehiago eman beharko dio erregioen edo estaturik gabeko herrialdeen auziari. Are gehiago, Erregioen Batzordeak izaera kontsultiboa baino ardua handiagoak izan beharko ditu eta erregio edoeta estaturik gabeko herrialdeei axola zaizkien gaietan ordezkagaritza edoeta kompetentzia propioak onartu beharko die. Hitz gutxitan esateko, Europaren eraikuntzan estatuak ez diren egiturek parte hartze handiagoa izan beharko dute.

4.- ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

- Ahrén, I.: "Political Development in Sápmi". The World Commission on Culture and Development: Majority-Minority Relations. *The case of the Sami in Scandinavia*. *Diedut*, nº 1, 1994.

- Aikio, P.: Development of the political status of the Sami people in Finland. The World Commission on Culture and Development: Majority-Minority Relations. The case of the Sami in Scandinavia. *Diedut*, nº 1, 1994

-Aitken, A.J. eta McArthur, T.: *Languages of Scotlan*. Chambers, Edinburgh, 1979.

- Basterretxea, I, Goikoetxea, I eta Juaristi, P.: "Europako ekonomi elkarteko hizkuntzen egoera". *Estudios de Deusto*, 1993.eko Urtarrila-Ekaina, 41/1.

- Birch, H.A.: *Nationalism & National Integration*. Unwin Hyman, London, 1989.

- Breuilly, J.: *Nationalism and the State*. Manchester University Press, Manchester, 1982

- Beach, H.: *Reindeer-Herd Management in Transition. The case of Tuorpon Saameby in Northern Sweden*. Uppsala Studies in Cultural Anthropology, Uppsala, 1981.

- Beach, H.: *The Sami of Lapland*. The Minority Rights Group. Report No. 55, 1988.

- Department of Sami Affairs: *The Sami-The Indigenous People of Norway*, The Norwegian Ministry of Local Government and Labour, 1995.

- Eskisabel, I eta Ormaetxea, A.: "Highlanden beste altxamendu bat". Egunkaria, 1997ko Apirilak 30

- Helander, E.: The Sami People: Demographics, origin, economy, culture. The World Commission on Culture and Development: Majority-Minority Relations. *The case of the Sami in Scandinavia*. Diedut, nº 1, 1994

- Instituto Sueco: *El pueblo sami de Suecia*. Instituto Sueco, Suecia, 1984. Hoja informativa del Instituto Sueco.

- Kuoljok, S. y Utsi, E. J.: *The Sami. People of the sun and wind*. Ájte, Swedish Mountain and Sami Museum, Jokkmokk, Sweden, 1993

- Keating, M.: *Naciones contra el Estado. El nacionalismo de Cataluña, Quebec y Escocia*. Ariel Ciencia política, Barcelona, 1996.

- Levack, P. B.: *The Formation Of The British State. England, Scotland, and de Union 1603-1707*. Clarendon Press, Oxford, 1987.

- Lunholm, K.O., Groth, O.J. y Peterson, R.Y.: *North Scandinavian History*. Tryck/Grafiska Huset, Lulea, 1996.

- Magga, O.H.: "The Policy towards The Sami People in Norway". *The World Commission on Culture and Development: Majority-Minority Relations. The case of the Sami in Scandinavia*. Diedut, nº 1, 1994

- Moran, M.: "Escocia Decidida a Recuperar su Autonomía". *Deia*, 12-5-1996.

- Moreno, L.: *Escocia, Nación y Razón. (Dos milenios de política y sociedad)* Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Instituto de Estudios Sociales Avanzados, Madrid, 1995.

- Sametinget: *Information about the Sami Parliament-A lecture*. Parlamento Sami de Norvegia, 1996.

Erabilitako Internet helbideak

- Norvegiako samiei buruz: Helander, E.: *The Sami of Norway*. ODIN. Ministry of Foreign Affairs (UD), 1992. **<http://ODIN.DEP.NO/ud/nornytt/uda-309.htm>**

- Suediako Legebiltzar Samiari (Samentinget) buruzko informazio orria: **<http://www.sametinget.se>**

- Finlandiako Samien Legebiltzarrai buruzko informazio orria: **<http://www.vn.fi/un/um/finfo/english>**

- Samie buruzko informazio orokorra: **<http://www.itv.se/bo-reale/samieng.htm>**

Patxi Juaristi